



Lagun agurgarriak

Joan den abenduaren 22an, Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren sorkuntza arautzen zuen 7/2003 Legearen argitalpenaren 15. urteurrena izan zen. Asko izan dira, Gizaberi Lanbide Elkartean, data horren aurretik (1995etik aurrera) eta ondoren, Gizarte Hezkuntzaren alde lan egin dutenak. Horiei guztiei eskertu egin nahi diegu lanbidearen alde izan duten konpromisoa eta dedikazioa, beraiei esker baita gaur egun Elkargoa Euskadin gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzean erreferente bat.

Egungo Gobernu Batzordea berritu egin behar da aurten eta aukera hau baliatu nahi dugu datorren Gobernu Batzordean parte hartzera gonbidatzeko. Elkargoak bizirik jarraituko du guk denok jarritako helburuak lortzen ahalegintzen garen neurrian: lanbidea sustatzea, gizarte hezkuntzaren inguruan zabal-kundea eta ezagupena eraiki eta plazaratzea eta gizartearen eraldatzean laguntzea; eta hori guztia elkargokideen parte-hartzerik gabe ez litzateke posible izango. Gobernu Batzorde sendo eta dibertsoa, EAEko hiru herrialdeetako pertsonen partaidetza duena, izango litzateke bermerik onena elkargoaren jarraitasuna ziurtatzeko eta Gizartearen aurrean Gizarte Hezkuntza defendatu eta aldarrikatzeko.

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIAREN "TONI JULIA OROIMENEZKOAREN" V. LEHIAKETA GHEE-CEESPVren Deialdia



Gizarte Hezitzaile eta Gizarte Hezkuntza ikasleek egindako lanbide proiektuen arteko lehiaketa da. Lan interesgarrienak eta berritzaileenak sarituko dira eta esagutarazteko laguntza izango dute.

Lanak bi kategorietan aurkestu ahalko dira: banakakoa eta taldekoa.

Gure Elkargoan aurkezteko epea 2018ko urriaren 2an zabaldu zen eta 2019ko martxoaren 31ko 12:00etan amaituko da.

Aurkezpenak eta bidalketak lehiaketaren oinarrietan agertzen den bezala Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargora emailaz ceespv@ceespv.org bidali beharko dira.

[Toni Julià Oroimenezkoaren V Lehiaketaren Oinarriak](#)

GHEE-CESPVREN BERRIAK

2018/11/9,10 eta 11 CGCEESko Udazkeneko Eskolan partehartzea. Gizarte Hezkuntza Elkargoen Kontseilu Nagusiak Elkargoko Presidentzi eta Idazkaritza Teknikoentzako arau eta kudeaketari buruzko antolatutako prestakuntzan parte hartu genuen.

2018/11/13 Etika eta Deontologia Batzordeak bilera egin zuen.

2018/11/29 "El Código Deontológico de la Educación Social" liburua Vitoria-Gasteizko Zabaltegi-La Floridan aurkeztua.

2018/12/10 Ibaiondoko HZrako lan poltsa frogara deusestatzeko eskaria. Lanpostuak Gizarte Hezitzaile tituladunak eta gaituentzako baino ez izateko eskaria.

13/12/2018 Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuene Zorroaren garapenaren jarraipena egiteko Batzordeak bilera egin zuen.

2018/12/18 Bilboko Udalako Etxegabeko pertsonen GZUB-eko bileran Elkargoko ordezkari batek parte hartu zuen.

2018/12/19 Bilboko Udalako Haur, familia eta desgaitasuna GZUB-eko bileran Elkargoko ordezkari batek parte hartu zuen.

2018/12/19 GUFeko Gerentearekin babesik gabeko adin txikikoentzako egoitza-harrerei buruzko egoeraz eta bertan lan egiten dituzten hezitzailei buruzko bilera.

2018/12/20 ARARTEKOaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoko Zuzendariarekin babesik gabeko adin txikikoentzako egoitza-harrerei buruzko egoeraz eta bertan lan egiten dituzten hezitzailei buruzko bilera.

2018/12/20 Pertsona nagusiekiko gobernantzarako euskal estrategia (2019-22) jardunaldian Elkargoko ordezkari batek parte hartu zuen.

2018/12/26 Ibaiondo HZrako lan poltsa deialdiari gora jo aurkeztu genuen.

2018/12/28 Euskal Herriko Harreta Goiztiar Lanbide Elkartarekin lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatu.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA**ARRETA GOIZTIAR ETA GIZARTE HEZKUNTZAKO IDAZKIA**

2000 urtean, Arreta Goiztiarreko Liburu Zuria argitaratu zen, Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkartearen Estatuko Federakundeko Arreta Goiztiarreko Taldeak idatzitakoa. Dokumentu honi jarraituta, Arreta Goiztiarra honela deskribatzen da: 0 eta 6 urte bitarteko haurrei, familiei eta inguruneri zuzendutako esku-hartzeen multzoa da eta berauen helburua da garapenean nahasmenduak dituzten edo garapenean nahasmenduak izateko arriskua duten haurren premia iragankor edo iraunkorrei ahalik eta azkarren erantzutea. Esku-hartze hauek haurra osotasunean hartuko dute aintzat eta diziplina arteko orientazio edo orientazio transdipolarreko profesional talde batek antolatu beharko ditu.

Definizio hori oinarritzat hartuta, autonomi erkidegoetan Arreta Goiztiarreko zerbitzuaren hainbat antolamendu-eredu garatu dira, Liburu Zuriari buruz eginiko interpretazio desberdinen arabera.

EAEan, Arreta Goiztiarra antolatzeko eta koordinatzeko erabili den dekretua 13/2016 Dekretua da, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa. Zehatzago esanda, Dekretu honek 0 eta 6 urte bitarteko haurrekin Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Zerbitzuen mailan buruturiko esku-hartzeak arautzen ditu.

Dekretu honetan, beste ezarpen batzuen artean dago Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak eratzearena. Talde hauek Foru Aldundietara atxikitakoak dira eta hiru arlo hauetako profesionalak osatutakoak:

Osasuna: pediatria, neonatologia, neuropediatria, birgaitze edo haur psikiatria arloko bi profesional.

Hezkuntza: hezkuntza beharrian bereziko bi aholkulari.

Gizarte Zerbitzuak: honako diziplina hauetako bakoitzeko profesional bat: birgaitze me dikuntza, psikologia klinikoa eta gizarte lana.

Lan-talde hauek Arreta Goiztiarreko tratamendu bat jaso beharra izan dezaketen haurren balorazioa egiteko ardura izango dute. Tratamendu hori Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeek burutuko dute gero. Zehatzago esateko, Dekretuak ezartzen duenaren arabera, lan-talde horiek dute haurrei, hauen familiari eta inguruneari diziplina arteko arreta terapeutikoa emateko ardura, eta honako zerbitzu hauek eskainiko dizkiete: psikomotrizitatea, psikoterapia, fisioterapia, logopedia, gizarte lana, psikopedagogia, psikologia, lanerako prestakuntza, gizarte hezkuntza eta haurraren garapenerako egokiak irizten diren beste batzuk. Eskaintzen diren zerbitzuak Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeek eginiko Arreta Pertsonalizaturako Planean ezarrita daude.

Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeek Haurren Garapenerako eta Arreta Goiztiarrerako Zentroetan burutzen dute lana, kokatzen direneko Lurralde Historikoari dagokion Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldearekin lankidetzan. Dekretuaren 13. artikuluan ezartzen da Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeak osatuko dituztenak honako funtzio hauetatik gutxienez hirutan jarduteko titulazio edo kualifikazio egokia duten profesionalak izango direla:

Psikomotrizitatea

Psikoterapia

Fisioterapia

Logopedia

Gizarte Lana

Esan beharra dago profil horiek guztiek Haur Garapenean eta Arreta Goiztiarrean prestakuntza espezializatua izan behar dutela.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

Gauzak horrela, Arreta Goiztiar arloan Gizarte Hezkuntzako profesionalen presentziari buruzko hausnarketa egin behar dugu. Kontuan izan behar da Gizarte Hezkuntza herritarren eskubidetzat hartzen dela eta, lanbideari dagokionez, pedagogia izaera du, hezkuntza testuinguruen eta bitartekotza eta prestakuntza ekintzen sortzailea da, Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Orokorraren 2012ko uztaileko Gizarte Hezkuntzako Aldizkarian jasota datorren bezala.

Arreta Goiztiarreko definizioa berreskuratuz, familia eta ingurunea eta beharrizan iragan-korren kontzeptua sartuta -gizarte bazterkeria edo horretarako arrisku egoeretatik eratorriak ere kontuan hartuta-, Gizarte Hezkuntzatiko esku-hartzea bidezko egiten dute. Hala ere, irudi hori ez da Arreta Goiztiarrean Esku-hartze Taldeetan agertzen; izan ere, hauek Haur Garapen eta Arreta Goiztiarreko Zentroetan kokatuta daude. Agian, zerbitzuaren egitura birplanteatzeko garaia izango da eta inguru zabaleko esku-hartzea aintzat hartzekoa, eta hori, argi eta garbi, Gizarte Heziketaren eskumenekoa da. Ere berean, Gizarte Hezkuntzako profesionalek Haurren Babeserako sistema barruan 0 eta 6 urte bitarteko haurrekin egiten duten lana aintzat harnezakeen, eurengan garapenean eragina duten beharrizanak sortzen baitira eta, ondorioz, euren bilakaera baldintzatzeaz gain, beste era bateko arazoak sor baitaitezke; esku-hartze prozesu horietan, Gizarte Hezkuntzak badu gaur egun presentzia baina, Arreta Goiztiarrari dagokionez, agian protagonismo handiagoa bereganatu beharko luke burutzen diren ekintzak koordinatze aldera.

70eko hamarkadan, zailtasunak zituzten haurrei erantzuna emateko beharrari buruz hitz egiten hasi zen, 2000 urtean Liburu Zuria sortu zen, eta gaur egun sare handi bat sortzen ari da arlo honen iguruan; beraz, esan dezakegu urte hauetan bide luzea egin dela Arreta Goiztiarraren arloan. Bide horretan, buruturiko ikerketak, ekimenak, araudiak, erregulazioak, lanbide mugaketak eta eskumenak, e.a. direla-eta hobetu egin da zerbitzuaren kalitatea, baina prozesu hau prozesu dinamikoa da, non etengabe doikuntzak egin behar diren eta hainbat diziplinak 0 eta 6 urte bitarteko haurren garapenerako egin ditzaketen ekarpenak baloratu behar diren, Arreta Goiztiarraren arloan esku-hartzeko beharrezko prestakuntza espezifikoa ahaztu gabe.

Gai honen gainean edozein kontsulta edo ekarpena egin nahian honako heblide elektronikora zuzendu ahal duzu apatpv@apatpv.org

Iñigo Bermejo Bueno
1255 Elkargokide Zbk.

Euskal Herriko Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkarte de la Asociación de Profesionales de Atención Temprana del País Vasco (APATPV - EHAGPE) Presidentea



Yo me quiero reír como se ríe esta gente. 27 historias de personas usuarias de los servicios públicos de inclusión de la Diputación Foral de Bizkaia = Jende horrek bezalaxe egin nahi dut barre. Bizkaiko Foru Aldundiko inklusiorako zerbitzu publikoen erabiltzaileen 27 i s t o -

rio. Departamento Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Bilbao, Diputación Foral de Bizkaia, 2018, 198, p. Ref.538653 Localización: SIIS 538653



JL. San Fabian
Evaluar Programas Socioeducativos en tiempos de crisis. Edc. Trabe.2014

En un contexto de crisis y reconceptualización del Estado de Bienestar, este libro reivindica el papel de la evaluación como instrumento de responsabilización al servicio de la transparencia y la equidad de una sociedad democrática.

[El error del adelgazamiento económico del Estado](#)


Cesar Rodriguez Catedrático CC Políticas U. Barcelona

[La ley vasca de servicios sociales: un fracaso colectivo.](#)

Fernando Fantova.

[Las profesiones de la intervención social: ¿Quítate tú pa' ponerme yo?](#)

Nos estamos pisando las profesionales de las diferentes disciplinas de la intervención social? Nos estamos metiendo unos en el trabajo de otros? Fernando Fantova presenta su punto de vista en el artículo al que podrás acceder clicando en el título.



Sánchez, A., Villajos, L., Resolución de conflictos. Habilidades y técnicas para educadores.

Madrid, Editorial CCS, 2018, 238 p.

Quienes deseen iniciarse en este ámbito encontrarán de utilidad el presente manual, que proporciona

nociones esenciales sobre conflictología y resolución pacífica de conflictos. Aborda primero las habilidades para la resolución de conflictos —ya sean sociales, relacionales, comunicativas o cognitivas— y luego, las técnicas aplicables a este mismo fin.

URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.